

KANALAK

Eremu honetan gure zerbitzua aurrera eramaten lagunduko diguten hainbat enpresa eta komunikabide zehaztuko ditugu. Bezeroak enpresa baten oinarria dira, haiek gabe ezinezkoa da arrakastarik edukitzea, beraz, gure zerbitzua ahalik eta jende gehiagora iritsi eta honen berri izatea gustatuko litzaiguke. Hori burutzeko kanal zehatz batzuk erabiliko ditugu.



Hasteko, gure zerbitzua ezagutzera eramaten gaituen kanal garrantzitsuena komunikabidearena da. Hortaz, *LOS40* irratsaioan egingo dugu gure plataformari buruzko publizitatea. *Los 40 principales* Espainian sortutako irrati kate garrantzitsuenetakoa eta gehien entzundakoa denez, estatuan zehar zabaltzeko eta oartzuna egiteko ideia ona iruditu zaigu. Gainera, gure segmentazioa zein den kontuan izanda, oso aproposa dela deritzogu, izan ere, irrati gehien entzuten duten pertsonak gure harpidedunen adin-tartearen barruan dago.



Komunikabideekin jarraituz, Instagramaren eta Facebooken bitartez ere gure plataformaren berri ematea erabaki dugu. Sare sozial ospetsu hauek guk definitutako bezeroek gehien erabiltzen dituztenak dira, hori dela eta, aproposenak direla uste dugu, gure etorkizuneko bezeroetara iristeko aukera zabalagoa ematen baitigute. Bertan gure kontu propioak sortu eta edukia igotzen joango gara, gure plataforma promozionatuz. Gu hirurok nerabegarotik jarduten dugu Instagramen eta beste hainbat sare sozialetan, beraz, haiek maneiatzeko ezagutza ondo menperatuta dugu, hori oso baliagarria izango da gure zerbitzua iragarkitzako momentuan. Bestalde, hori gutxi izango balitz, aipatutako bi sare sozialetako

erabiltzaileei gure plataformaren iragarkiak jasoko dituzte, *Insta Stories*-en bitartez adibidez.



Elkarte baten laguntza ere jasoko dugu, OMSIDA izenekoa. Elkarte honek ETS-ak dituzten pertsoneri laguntzea du helburu, gaixotasunei buruzko zalantzak argituz eta aholkuak emanaz. Hauek hitzaldiak egiten dituzte jendea kontzientziazteko eta gai hau tabu izateari utz diezaion. Hizketaldi horietan segmentazioan zehaztutako bezeroak egongo

direnez, OMSIDA-koek bertan gure aplikazioari buruz hitz egitea ondo datorkigu.

A handwritten signature in black ink that reads 'ETS' followed by a heart symbol.